

TITULARRAK	ADIERAZLEAK			
	Azken datua	Δ Urte artekoa (%) *aurreko aldia	Azken datuaren datua	
<ul style="list-style-type: none">Azaroko biztanleria langabea -% 0,4 jaitsi da, eta 21.253 pertsonakoa izan da.Afiliatutako biztanleriak gora egin du; urrian baino % 1,6 gehiago da orain. Guztira 199.184 afiliatu daude.Bilboko enpresetan 11.936 kontratu sinatu dira, hau da, 2023ko azaroan baino -% 1,3 gutxiago.Gora egin du ostatu-gauen kopuruak: 166.649 (2023ko azaroan baino 11.003 gehiago). Hoteletan pasa den urtean baino 1.122 bidaiari gutxiago egon dira.2024ko hirugarren hiruhilekoan, Bizkaiko BPGd-ak urte arteko % 1,6ko igoera izan du, eta hiruhileko arteko % 0,4ko igoera.Bilboko aireportuak historiako azarorik onena erregistratu du: 482.219 bidaiari, 2023ko azaroan baino 29.917 gehiago.Bilboko Portuan 2,8 milioi tonako trafikoa erregistratu da azaroan, aurreko urteko hil berean baino % 9,6 gehiago.	Lan-merkatua			
	Afiliatuak (kop.)	199.184	1,6*	Aza.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	21.253	-0,4*	Aza.
	Erregistratutako kontratuak	11.936	-1,3	Aza.
	Merkataritza			
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2015. urtea = 100eko oinarria)	105,1	2,8	Aza.
	Turismoa			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	85.509	-1,3	Aza.
	Ostatu-gauak (kop.)	166.649	7,1	Aza.
	Ekonomia eta enpresa			
Etxebizitza librea (€/m ²)	3.043,0	3,5	2024ko 3. HH	
Bizkaiko BPGd (2015.urtea= 100 oinarria)	104,5	1,6	2024ko 3. HH	
Garraioa				
Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	482.219	6,6	Aza.	
Salgaien itsas garraioa (milioi tona)	2,8	9,6	Aza.	

DATU BAT

Urte arteko % **1,6**
Bizkaiko BPGd-a

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Azaroan 80 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hil artean $-0,4\%$ gutxiago, eta 21.253 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa jaitsi egin emakumeen eta gizonen artean, $-0,4\%$, bi kasuetan. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 45 emakume eta 35 gizon langabe gutxiago zeuden.

Langabeziaren beherakada egon da adin-talde guztietan: Gazteen artean, $-1,3\%$ (25 langabe gutxiago) jaitsi da, 25 eta 44 urtekoen artean, $-0,1\%$ (4 gutxiago) jaitsi da eta 45 urte edo gehiago dituztenen artean, $-0,4\%$ (51 gutxiago) jaitsi da.

Sektoreen arabera, Zerbitzuen sektorean erregistratutako langabeziak behera egin du $-0,8\%$ (123 gutxiago) eta Lehenengo Sektorean, ordea, $-1,5\%$ (6 gutxiago). Industrian eta Eraikuntzan gora egin du, $0,6\%$ eta $0,5\%$ hurrenez hurren (8 eta 7 gehiago, hurrenez hurren). Gora egin du baita ere langabezia egonda lehenengo lanbidea bilatzen ari direnen artean ($1,1\%$ eta 34 langabe gehiago).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasa $0,8\%$ murriztu da aurreko hilaren aldean. Zaragozan izan da beherakadarik nabarmenena ($-1,7\%$) eta Sevillan baxuena ($-1,0\%$). Bartzelonan, hilabetetik hilabetera, mantendu da eta soilik Valentzian igo da ($0,6\%$).

Euskal hiriburuen taldean (G-3) erregistratutako langabezia $-0,9\%$ jaitsi da. Langabeziak behera egin du Donostian eta Gasteizen ($-0,9\%$, bi kasuetan) eta Iruñean ($-1,0\%$).

Langabeziak behera egin du EAEn ($-0,6\%$) eta hiru lurraldeetan: Araban $-1,0\%$, Bizkaian $-0,1\%$ eta Gipuzkoan $-0,6\%$.

Afiliatuak

Azaroaren amaieran, Bilboko enpresetan 199.184 afiliatu zeuden; beraz urrian baino 3.187 enplegu gehiago dira, hau da, $1,6\%$ gehiago.

Araubideen arabera, Orokorrak 3.020 enplegu irabazi ditu aurreko hilaren aldean, Langile Autonomoen Araubide Bereziak 132 afiliazio ($1,8\%$ eta $0,6\%$ gehiago, hurrenez hurren) eta Etxeko Langileen Araubidean 36 enplegu ($0,6\%$). Berezetan (nekazaritza eta itsasoa) enplegu bakarria galdu da ($-0,1\%$).

Sektore guztietan egin du afiliazioak gora: Zerbitzuetan 3.057 afiliatu gehiago erregistratu dira ($1,7\%$), Industrian 73 ($0,8\%$), Eraikuntzan 50 ($0,5\%$) eta Lehen Sektorean 7 ($3,1\%$).

Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko Δ

Azaroa	21.253 pertsona
	$0,4\%$ ▼
Emakumeak	$0,4\%$ ▼
Gizonak	$0,4\%$ ▼

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	$0,4\%$ ▼
G-5	$0,8\%$ ▼
G-3	$0,9\%$ ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko Δ

Azaroa	199.184 pertsona
	$1,6\%$ ▲
Araubide Orokorra	$1,8\%$ ▲
Autonomoak	$0,6\%$ ▲
Etxeko SB	$0,6\%$ ▲
Beste batzuk	$0,1\%$ ▼

Zerbitzuetan gora egin dute aintzat hartutako adar guztiek. Datu absolutuetan, igoerak nabarmendu dira administrazio-jardueretan eta zerbitzu osagarrietan, Merkataritzan, Hezkuntzan eta Ostalaritzan (681, 514, 399 eta 230 gehiago, hurrenez hurren).

Urte artean enpleguak % 3,9ko gorakada izan du, hau da, 7.483 afiliatu gehiago.

Autonomoen araubideak gora egin du, % 0,9, hain zuzen. Hala, azaroa urte arteko igoera izan duen laugarren hilabetea izan da, ekainarekin, abuztuarekin eta urriarekin batera, 2021eko abenduan hasitako urte arteko jaitsiera etengabeen ondoren.

Sektoreen arabera, zerbitzuetan 7.163 afiliatu gehiago izan dira (% 4,1) eta industriak 390 (% 4,5). Eraikuntzak 51 enplegu galdu ditu (-% 0,5) eta lehen sektoreak 19 enplegu (-% 7,6).

Nabarmentzekoak dira, bereziki, hazkunde absolutuak Merkataritzan, Administrazio-jardueretan eta Zerbitzu osagarrietan, Ostalaritzan eta Jarduera profesionalean, zientifikoetan eta teknikoetan (1.248, 1.048, 1.009, 754 eta 727 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 1,8ko gorakada islatu du aurreko hilaren aldean. Valentzian erregistratu da hazkunderik handiena (% 2,2) eta Bartzelonan txikiena (% 1,5).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, % 1,7 igo da. Gasteizen % 1,9 igo da, Donostian % 1,6 eta Gasteizen % 1,5.

EAEn, oro har, afiliatutako biztanleria % 1,2 igo da hilabete batetik bestera. Lurraldeei dagokienez, denetan egin du gora afiliazioak. Arabak % 1,8 egin du gora, Bizkaiak % 1,2 eta Gipuzkoak % 1,0.

Erregistratutako kontratuak

Azaroan 11.936 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino -% 1,3 eta 153 kontratu gutxiago. Urtetik urtera murriztu egin dira gizonen eta emakumeen egindako kontratuak: 145 eta 8 gutxiago, hurrenez hurren.

Adin-tartean arabera, gazteenei egindako kontratuak igo dira, % 6,8 gehiago, hau da, 182 kontratu. Bestalde, behera egin dute 25-44 urte arteko taldean -% 4,5 (272 gutxiago) eta 45 urteko eta gehiagoko taldean -% 1,9 (63 gutxiago). Erregistratutako kontratuen % 48,4 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.774 kontratu), % 24,0, berriz, gazteenei (2.863) eta gainerako % 27,6a, ordea, 45 urte eta gehiagokoei (3.299).

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko Δ

Azaroa	199.184 pertsona
	% 1,6 \blacktriangle
Zerbitzuak	% 1,7 \blacktriangle
Eraikuntza	% 0,5 \blacktriangle
Industria	% 0,8 \blacktriangle
Lehen sektorea	% 3,1 \blacktriangle

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 1,6 \blacktriangle
G-5	% 1,8 \blacktriangle
G-3	% 1,7 \blacktriangle

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urte arteko Δ

Azaroa	11.936 pertsona
	% 1,3 \blacktriangledown
Emakumeak	% 2,1 \blacktriangledown
Gizonak	% 0,2 \blacktriangledown
Lehen sektorea	% 180 \blacktriangle
Industria	% 27,1 \blacktriangle
Eraikuntza	% 2,2 \blacktriangledown
Zerbitzuak	% 2,4 \blacktriangledown
Kontratutako pertsonak	% 1,7 \blacktriangledown

Zerbitzuetako kontratuek behera egin dute (-% 2,4, hau da, 267 gutxiago) baita Eraikuntzako kontratuek ere (-% 2,2, hau da, 7 gutxiago). Gora egin dute Industriako kontratuek (% 27,1, hau da, 112 gehiago) baita Lehenengo Sektorekoak ere (% 180,0, hau da, 9 gehiago).

Azaroko aldi baterako kontratuak kontratu guztien % 76,3 izan dira. 8.750 pertsona kontratatu dira eta % 54,7 emakumeak dira. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,36 kontratu.

MERKATARITZA

Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentek, azaroan, % 2,8 egin dute gora urte batetik bestera, lan-egutegi homogeenari dagokionez. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 0,6 murriztu dira salmentak.

Elikagaien salmentek % 3,5 egin dute gora 2023ko azaroarekin alderatuta, eta gainerako produktuak maila berean mantendu dira (% 1,7) aldi berean.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 0,2ko beherakada txikia izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute urtetik urtera Gipuzkoan (% 0,2) eta Araban (% 1,1). EAEn, orokorrean, % 1,8 egin dute gora.

TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduetan 166.649 ostatu-gau erregistratu dira azaroan, hau da, % 7,1eko hazkundera egon da urtetik urtera (11.003 ostatu-gau gehiago).

Bidaiarien sarrerak ere behera egin du pixka bat (-% 1,3). Urtetik urtera, hirian, estatuko bidaiarien kopurua mantendu da (% 0,0). Atzerriko bidaiariek (Bilboko hotel establezimenduetan izandako sarrera guztien % 38a), ordea, urrian behera egin dute. (-% 3,4).

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaiariei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugariak (% 26,7), gero EAekoak (% 16,6), Kataluniakoak (% 12,1) eta Andaluziakoak (% 7,8). Atzerriko bidaiariei dagokienez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: Frantzia (% 14,7), AEB (% 9,6), Alemania (% 8,3), Erresuma Batua (% 7,1) eta Italia (% 7,0).

Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa Δ

Azaroa	105,1
Salmenta-indizea	% 2,8 \blacktriangle
- Elikadura	% 3,5 \blacktriangle
- Gainerako produktuak	% 1,7 \blacktriangle
Landunak	% 0,2 \blacktriangledown

Ostatu-gauak

Urte artekoa Δ

Azaroa	166.649 ostatu-gau
	% 7,1 \blacktriangle
Hiru izar eta gehiagoko hotelak	% 5,8 \blacktriangle
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 10,5 \blacktriangle

Bidaiarien sarrera

Urte artekoa Δ

Azaroa	85.509 sarrera
	% 1,3 \blacktriangledown
Nazionalak	% 0,0
Atzeritarrak	% 3,4 \blacktriangledown

Batez besteko egonaldia

Urte artekoa Δ

Azaroa	1,95 ostatu-gau/bidaiari
	% 8,33 \blacktriangle

Gora egin du batez besteko egonaldiak eta bidaiari bakoitzeko 1,95 ostatu-gau izan dira.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 72,4 eurokoak dira eta % 16,5 igo dira. Bestalde, hoteletako batez besteko tarifak 103,4 eurokoak dira (+% 10,5).

Benchmarkina. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 10,9 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 3,5), Donostian (% 16,0) eta Iruñean (% 7,0).

EAE osoan gorakada % 8,3koa izan da aurreko urteko azaroko datuen aldean. Lurralde guztietan gora egin dute ostatu-gauek: Bizkaian % 5,4, Araban, % 6,7 eta Gipuzkoan % 12,3.

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 1,7ko gorakada izan dute. Ostatu-gauek gora egin dute taldeko hiriburu guztietan, Bartzelonan (-% 2,6) eta Valentzian (-% 8,1) izan ezik. Zaragozan izan da gorakadarik handiena: % 9,8.

EKONOMIA

Bizkaiko BPGd-a

Bizkaiko barne produktu gordinak urte arteko % 1,6ko gorakada erregistratu du 2024ko hirugarren hiruhilekoan. Euskal ekonomian, orokorrean, % 1,8 egin du gora.

Hiruhilekotik hiruhilekorako aldakuntzaren baldintzetan, Bizkaiko BPGd-a % 0,4 igo da eta, ondorioz, hazkundea ez da aldatu aurreko hiruhilekoari dagokionez. Bestalde, EAEn hazkundea % 0,5koa izan da.

EAE osorik hartuta, jarduera-sektoreek bilakaera positiboa izan dute Lehen Sektorean izan ezik, -% 2,3. Beste sektoreetan gora egin dute: Industrian eta Eraikuntzan % 0,9 gehiago eta Zerbitzuetan % 0,3 gehiago.

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 482.219 bidaiari izan ditu azaroan (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 6,6 eta 29.917 bidaiari gehiago. Emaiza horiei esker aireportuak azaroko daturik onena lortu du martxan jarri zenetik.

Sektorearen errentagarritasun-adierazleak

Urte artekoa Δ

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 10,5 \blacktriangle
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 16,5 \blacktriangle

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 7,1 \blacktriangle
G-5	% 1,7 \blacktriangle
G-3	% 10,9 \blacktriangle

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Barne-produktu gordina Bizkaia

III. hiruhilekoa

Urte artekoa Δ	% 1,6 \blacktriangle
Δ Hiruhileko artekoa	% 0,4 \blacktriangle

Hiruhilekoko BPGd-a (milioi €)	12.345,2
--------------------------------	----------

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Azaroa	482.219 bidaiari
	% 6,6 \blacktriangle
Nazionalak	% 1,9 \blacktriangle
Nazioartekoak	% 14,6 \blacktriangle
Salgaiak (kg)	% 19,4 \blacktriangle
Hegaldiak	% 7,2 \blacktriangle

Hegaldi nazionalako bidaiarien kopuruak gora egin du, izan ere, 5.338 bidaiari gehiago izan dira (% 1,9); hala ere, nazioarteko bidaiarien kopuruak gora egin du % 14,6 eta 24.684 bidaiari gehiago izan dira.

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 3.951 izan dira (% 7,2), eta garraiatutako salgaiak igo dira (% 19,4).

Urtarriletik azarora 6.284.187 bidaiari metatu dira, aurreko urteko aldi berean baino % 7,1 gehiago, hau da, 418.361 bidaiari gehiago.

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusiei dagokienez (G-5), urtetik urtera % 7,5ko igoera kontabilizatu da. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Zaragozan izan da hazkunderik nabarmenena (% 19,6) eta Valentzian baxuena (% 0,5).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, % 5,0 handitu da, urtetik urtera. Iruñean % 5,7 handitu da, Donostian % 2,2 eta Gasteizen % 10,8.

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 6,6 \blacktriangle
G-5	% 7,5 \blacktriangle
G-3	% 5,0 \blacktriangle

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza

G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Itsas garraioa

Bilboko Portuak 2,8 milioi tonako trafikoa izan du azaroan, hau da, % 9,6 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan azaroan kudeatutako salgaien % 63,6 izan da, eta urte arteko % 5,4ko igoera izan du. Solteko gaien trafikoa % 37,3 igo zen (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrak % 9,7.

Azaroan itsas bidaia bakarra erregistratu da.

Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik azarora, 32,1 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko aldi berean baino % 5,7 gehiago.

Itsas garraioa Azaroa

Urte artekoa Δ

Portuko trafikoa	2,8 milioi tona
	% 9,6 \blacktriangle
Bidaiariak garraiatzea	7.801 bidaiari
	% 81,2 \blacktriangle
Itsas bidaiariak (kop.)	2.331 itsas bidaiari
	% 28,5 \blacktriangledown

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.253	-0,4*	2024ko aza.
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	199.184	1,6*	2024ko aza.
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	11.936	-1,3	2024ko aza.
Biztanleria aktiboa (milakotan)	176,7	-1,5*	2024ko III. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	161,6	-0,6*	2024ko III. HH
Langabeak (milakotan)	15,0	-10,7*	2024ko III. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	8,51	-0,84 p.p.*	2024ko III. HH
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	116,5	0,3*	2024ko aza.
Afiliatuak**	20.723	6,4	2024ko aza.
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	109,4	4,2	2024ko III. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	105,1	2,8	2024ko aza.
Turismoa			
Bidaarien sarrera	85.509	-1,3	2024ko aza.
Ostatu-gauak	166.649	7,1	2024ko aza.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia)	1,95	8,33	2024ko aza.
Hoteletako okupazio-maila (%)	54,4	2,6 p.p.	2024ko aza.
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	72,44	16,5	2024ko aza.
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BPGd-a	104,5	1,6	2024ko III. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	114,5	-3,6	2024ko aza.
Merkataritza-sozietate berriak	652	7,8	2024ko I., II. eta III. HH
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	116,7	-0,1	2024ko III. HH
Etxebizitza librearen batez besteko prezioa (€/m ²)	3.043,0	3,5	2024ko III. HH
Garraioa			
Bidaarien aire bidezko garraioa	482.219	6,6	2024ko aza.
Hegaldiak	3.951	7,2	2024ko aza.
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,8	9,6	2024ko aza.

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaia dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EINren, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia-tasa




Afiliatuak




Hotel-gauak



Bizkaiko BPGd-a



Aireportuko bidaiariak



Portuko trafikoa

